

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteazkena, 2011ko ekainaren 1a. VIII. urtea. 2.236. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Leitzak harrera beroa egin dio Mikel Nieveri

Euskaltel-Euskadiko txirrindularia «pozik eta hunkituta» azaldu da Leitzako plazan; Giroan lortutako etapa buruan duela, herritarrei garaipen gehiago lortzen saiatuko dela azaldu die **5**



Herenegun iluntzean egin zioten omenaldia Nieveri, Leitzan. HITZA

## Eider Elizegik hitzaldia eskainiko du Iruran Aste Berdearen barruan

‘Mendia, txikiaren handitasuna’ izango du hizketagai lasartearrak; Amezketan, ‘Banka etikoa, dirua gizakien zerbitzura’ erakusketa jarri dute kultur etxean **6-7**



Eider Elizegik gaur eskainiko du hitzaldia. HITZA



# TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



**ziklo guztiak euskaraz**

## Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

**AURREMATRIKULAK** Ekainaren 1etik 10era

### ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mekanizazioa
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Soldadura eta Galdaragintza

### GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Informatika
- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Metal eraikuntzak

943 65 11 47 • [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

Mugikorrean informazio gehiago  
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

# Bonberenearen inguruko hausnarketa egingo dute «piromanoek», etzi

Hitzaldia 19:00etan hasiko da eta herritar guztiak gonbidatu dituzte eztabaidan parte hartzera

**Asier Imaz** Tolosa

Bonbereneak atek zabalduko ditu hilaren 3an, etzi. «Piromanoek» Bonbereneako gaur egungo egoera eta etorkizunari begira planteatzen diren erronkei buruzko hausnarketa egingo dute, 19:00etatik aurrera. Hala eta guztiz ere, lehenik, *Gaurko hausnaren hatsa...* biharko piromanoen errautsa film laburraren proiektzioa ikusteko aukera egongo da.

Hausnarketa Txoan Ormazabalak aurkeztuko du, eta besteak beste, ondorengo gaiak jorratuko dituzte: gaurko erronkak; Bonbe-

renearen ingurunea; eta piromanoen etorkizuna. Bertakoek hartuko dute hitza ondoren, euren gogoetak plazaratzeko.

*Sormenaren suhiltzaileen aurrean izan piromano eta zabaldu sua!* lelopean, herritarrak gonbidatu dituzte Bonbereneara.

## Goseren kanta berria

Hausnarketaz gain, ostiralean, Gose taldearen kanta berria aurkeztuko dute Bonberenean egingo duten bilkuran. Singleak *Bonberenea Sutan* du izena, eta omenaldi txiki moduan egin dute. Abestia entzun nahi duenak ondorengo helbidean aurkituko du: [http://www.bonberenea.com/mp3/Gose\\_Bonberenea-Sutan.mp3](http://www.bonberenea.com/mp3/Gose_Bonberenea-Sutan.mp3)

## 'Matxura' lan berria

Bonberenea Ekintzakek, bere aldetik, Matxura taldearen azken lana kaleratu duela azaldu du.

Matxura musika egitasmo berri bat da, nahiz eta partaide ezagunak izan bere baitan. Mikel Kazalis (Estigia, Anestesia, Negu Gorriak, 2kate, Kuraia); Aitor Abio (Pilt); Fer Apoa (El Corazon de Sapo, Kuraia, Estricalla) eta Txarly Diaz (Censura, Anestesia, Gatural, Why not?) dira taldea osatzen dutenak. Azken bi urte hauek taldea osatzen eta abestiak egiten eta grabatzen pasa ondoren, ekainaren 23an aurkeztuko dute beraien lehen diskoa izango dena, *Matxura*, Bonberenea Ekintzak zigituaren laguntzaz.

Rock industrialia, punk-metal elektronikoa... azken finean, rock indartsua elementu elektronikoekin nahastuta da eskaintzen dutena. Ministry, Atari, Teenage Riot, Nine Inch Nails, Godflesh... izan daitezke eragin batzuk, Bonberenean Ekintzaketik azaldu dutenez.

# Etxezarreta kalearen inguruan autoek arau berriak izango dituzte

Xare Kalea 7an etxebizitza tasatuak egin behar dituztenez, antolamendu berria egin du udalak

**A. Imaz** Irura

Irurako Etxezarreta kalearen inguruan trafiko eta aparkalekuen antolamendu berria eratu da. Laster, Irurako Xare Kalea 7an etxebizitza tasatuak eraikiko dituzte, eta orain arte aparkatzeko erabiltzen zen eremuan ezingo da aparkatu. Ondorioz, autoentzart arauak egokitzea erabaki dute udaletik. Aparkalekuetarako eta

ibilgailuen erosotasunerako, ondorengo neurriak hartuko dituztela azaldu dute udaletik:

-Etxezarreta 1etik 11raino doan kale zatian, eta etxe hauen aurrean dauden aparkalekuetan autoak baterian antolatuko dira egonaldiak.

-Aipatu kale zati hau norabide bakarrekoa izango da eta autobus geltokiaren ondotik sartu beharko da.

-Etxezarreta 13 eta 19 zenbakien arteko kale zatian, Loatzo Plazaren inguruan, ezkerrean bihurtu eta Kale Nagusira atera beharko da.

-Loatzo plazaren paretik Kale Nagusira doan zatia ere norabide bakarrekoa izango da.

-Etxezarreta eremuko kaleetik Kale Nagusira joateko, bai Donostiako norabidera edo baita Anoeta-Tolosa norabidera, 30 eta 36 zenbakidun etxeen artean hartuko da errepidea, hau da, Irura Urdaitegiaren ondoko bialeitik barrena.

Gainerako kaleetako norabideak berdin mantentzen direla ere azaldu dute udaleko trafiko arduradunek.

Bestalde, lurrazpian garajeak dituztenei Irurako Udalak zera eskau die: ahal den neurrian bertan gorde ditzatela autoak kaleko aparkalekuak erabili gabe.

## → Laburrak

### Oria ibaian paseatzeko aukera ekainaren 5ean

**TOLOSA** > Ekainaren 5ean, igandean, *Kirolari ateak zabalik* ekimena ospatuko da Tolosako Oria ibaian, 10:00etatik aurrera. Arraunlariek, piraguistek eta arrantzaleek bere tartea edukiko dute, baita pedaloek ere. Herritarrek ibaian paseatzeko aukera edukiko dute. Udalak TAK arraun elkarte, Ibiur piragua elkarte eta Tolosako Arrantzale elkartearen laguntza izan du jardunaldi hau burutzeko.

### Peña San Vicentera irteera egingo du Oargik

**MENDIA** > Oargik mendi irteera antolatuko du ekainaren 5ean, igandean. Kantabrian aurkitzen den Peña San Vicentera (930m) joango dira autoz. Hainbat aukera dago ateratzeko. Ostiral arratsaldean abiatzen direnak, larunbatean, Ramalesen eskalada edo ferrata egingo dute. Larunbatean eta igandean bertara joateko aukera ere egongo da. Izena emateko, edo informazio gehiagorako, 688 69 86 42 zenbakira deitu edo [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org)-ra idatzi behar da.

### Diru laguntzei buruzko informazio jardunaldia

**MERKATARITZA** > Tolosa&Co Merkatarien Elkarteak Gipuzkoako Merkatarien Elkartearekin batera, *Q Merkaltatea* titulua ateratzeko ikastaroa antolatu du. Bigarren batzarra ekainaren 7an, asteartean, egingo dute. Bezeroak erakartzeko eta bezeroei eusteko teknika berritzaileak aztertuko dituzte. Bestalde, gaur, 13:30ean Tolosako kultur etxean, aurrean plazaratuko diren diru laguntzei buruzko informazio jardunaldia izango da, Tolosaldeako Merkataritza-rako Dinamizazio Bulegoak antolatuta.

### Zine bonuak erosteko aukera zabalik dago

**TOLOSA** > Ekaineko zine bonuen salmenta zabalik dago, hilaren 13ra bitarte. Leidor aretoko leihatilera joan behar da erosteko. Saio guztietarako prezioa 11 eurokoa da eta ekaineko saioetarako 7 eurokoa.

### Alpinok Otxagabiara mendi irteera antolatu du

**MENDIA** > Alpino Uzturre Elkarrekin mendi irteera antolatu du ekainaren 5erako, iganderako. Txangoa Otxagabiatik hasi eta Isaban bukatuko da, Kakueta (1.583 m.) mendia igokio dutelarik. Autobusaren irteera San Frantziskotik 07:00etan izango da. Ibilaldiaren iraupena 6 ordukoa izango da. Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta ez bazkideek 13 euro. Izena emateko, 943 65 27 89ra deitu behar da, edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidera idatzi.

### Piano emanaldia gaur 19:00etan auditoriumean

**ANOETA** > Loatzo Musika Eskolako piano emanaldia antolatu du gaur, ekainak 1, 19:00etan, Anoetako auditoriumean. Musika eskolako arduradunek herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara.

### Uztaro kooperatiba ezagutzeko aukera, gaur

**TOLOSA** > Uztaro kooperatibak autofestioan eta agroekologian oinarritutako barzate kolektibo batean parte hartzera gonbidatu ditu herritarrak. Tolosan bazkide-talde bat sortzeko asmotan aurkezpen-hitzaldi bat egingo dute. Bertan, funtzionamendua, asteroko barazki-otarrak, konpromisoak... azalduko dituzte, euren proiektua hobeto ezagutzeko aukera ere egongo delarik, baita zalantzak argitzea ere. Hitzaldia gaur, ekainak 1, 19:30ean izango da, Tolosako kultur etxearekin nagusian.

### 'Zoriontsu izateko hezkuntza' hitzaldia

**TOLOSA** > Hirukide ikastetxean hitzaldia egongo da gaur, *Zoriontsu izateko hezkuntza* izenburupean. Bertan hainbat galderei erantzuteko bideak aztertuko dituzte: «Nork ez du bere seme-alabak zoriontsu izateko hezi nahi? Nola horrela hezi gu geu ez bagara zoriontsu bizi?...». Begoña Ibarrola psikologoa, idazlea eta adimena emozionalean adituak emango die erantzuna galdera hauei. Hitzaldia 18:00etan izango da Hirukiden, San Frantzisko 12 helbidean.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### AURKITUAKOAK

■ **Bizikleta.** Pasa den maiatzaren 21ean, larunbata, 12 urteko umeentzako moduko mountain-bike bizikleta agertu zen. Galdu duenak, deitu dezala 635 70 69 53 zenbakira.

### ESKAITZA

■ **Ingeleseko ikastaroak.** Ingeleseko ikastaroak, uda partean: ekaina, uztaila eta abuztua. Talde bereziak. Elkarrizketak, atzerriko bidaietarako eta lanerako

gaitasunak. Maila ezberdinak, taldeka edo banaka. Umeak eta helduak. Irakasle tituluduna. 664 16 02 68.

■ **Klase partikularrak.** Psikopedagogian eta hezkuntza berezian tituludunak. LHko eta DBH1 eta DBH2ko ikasleei zuzenduriko klase partikularrak emango lituzke, Andoain, Aduena, Villabona, Zizurkil, Asteasu eta inguruetan. Interesatuak, deitu 669 00 56 71 telefono zenbakira.

# TOPAK Asuncion klinikan aurreikusita dauden obrak geratzeko eskaera egin du Tolosako Udalean

Herritarren, langileen eta eragile nahiz alderdi politikoen babesadutela nabarmendu du koordinakundeak

## Itzea Urkizu

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) plataformak, idatzi bat aurkeztu zuen Tolosako Udalean, pasa den maiatzaren 26an. Asuncion klinika handitzeko obraren baimena bertan behera uzteko eskaria egin diote Jokin Bildarratzi.

Tolosako espezialitateen anbulatorioa pixkanaka «hustutzen» ari dela salatuz, hilabeteak daromatza TOPAK, eta osasun zerbitzuen «privatizazioaren aurka» hamaika ekintza burutu dituzte. Asuncion klinika pribatuak espezialitateen anbulatorioko zerbitzua erabat eta behin betiko hartzea aurreikusi du, hiru urteko epean. 2007an Eusko Jaurlaritzan



Pasa den maiatzaren 14an izan zen manifestazioa. M. UGARTEMENDIA

ko Osasun Sailak Eusko Legebiltzarrean egindako ikerketa-proposamen bat da auzi honen jatorria.

Bide honetan, eta planaren arabera, Asuncion klinikak honako zerbitzuak hartuko ditu espezialitateen anbulatorioetik, beregain, datozen urteotan: kardiologia,

dermatologia, digestiboa, endokrinologia, neumologia, neurologia, ginekologia, kirurgia orokorra, oftalmologia, otorrinolarinologia, traumatologia eta errehabilitazioa.

Honetarako, langileria nahiz azpiegiturak handitu beharko ditu klinika pribatuak. Hain zu-

zen ere, klinika handitzeko plana martxan da jada, eta uda amaieran hasiko dira eraberritze lanekin. Egungo klinikako eraikineren ondoan, eraikin berria egiteko asmoa dute; hiru solairu izango ditu, eta sotoa ere bai. Obra honek 3.000 metro karratutan handituko du klinika.

## Obrak geratzeko eskaera

TOPA plataformak Tolosako Udalean aurkezturiko idatziak aipaturiko obrak geratzeko eskatzen du. Zehazki, koordinakundeak, «Asuncion klinika handitzeko udalak har dezakeen edozein erabaki gelditzeko» eskatu diote Jokin Bildarratzi, funtzioetako alkateari; «batez ere, obrak egiteko baimena geratzea nahi dugu».

## Asuncion klinikako eraberritze obrak uda ondoren hasteko asmoa dute

## TOPAko kideek obrak egiteko baimena geratzeko eskatu dute udalean

Era berean, TOPA plataformak, era honetako erabakiak udalbatza berriak hartu beharko lituzkeela uste du.

Azkenik, osasun zerbitzu publikoaren aldeko plataformako kideek eskualdeko herritar nahiz eragileen babesadutela gogorazi nahi izan diote Bildarratzi: «12.000 sinadura baino gehiagoren, eta pasa den maiatzaren 14eko manifestazio handiaren babesadukagu, eta baita langileena eta hainbat elkarte, alderdi politikoa eta sindikatuena ere.

## Hilberria

## ESKELAK

943-65 56 95

[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)



## IÑAKI ARMENDARIZ AYESTARAN

jauna

Beti egon zara gure artean, jarraitu egoten gure bihotzean.

IRIARTE JATETXEA

BERROBIN, 2011ko ekainaren 1a



## IÑAKI ARMENDARIZ AYESTARAN

AINITZE ETA ZUHARA  
GURE IKASLEEN AITA

BERROBIKO HEZKUNTZA KOMUNITATEKO PARTAIDEAK

BERROBIN, 2011ko ekainaren 1a



## IÑAKI ARMENDARIZ AYESTARAN

jauna

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin.  
Gure oroimenean izango zara betiko,  
ez adiorik gero arte baizik.



MUNKSJO-KO LANKIDEAK



Elduan, 2011ko ekainaren 1a

**HILETAREN BALIOA**  
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakotzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna,  
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazatzea izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

**902 402 900**

[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

Duela urte batzuk, Amaroizko eskolaren eraikina Laskorain ikastolako umeen ikastetxea zen. Orain, musika ikasi, sortu eta elkarbanatzeko lokalak egokitu dituzte bertan, herriko talde gazteentzat.

# Doinu berriei atepak zabalik

## Itzea Urkizu

**A**maroizko eskolako eraikinean, hainbat gaztek euren musika sortzeko eta lantzeko txokoa dute, joan den urteaz geroztik.

Orain urte batzuk, Laskorain ikastolako Haur Hezkuntzako umeak aritzen ziren bertan. Gero, eraikina hainbat gaztek hartu zuten euren aisialdirako lokal moduan, eta auzoko festetan parrandarako txokoa bilakatu zen eskola.

2009. urte inguruan, Tolosako musika talde berriak udalera joan ziren entsegu lokalak behar zituztela esanez: «lehenengo udal txeko harrerara joan ginen, baina gero segituan hasi ginen kultur etxeko TlsBat-eko arduradunekin bilerak egiten», dio lokaletako talde bateko kideak.

Lokal eske talde bat baino gehiago joan zirela ikustean, udalako arduradunek Amaroizko eskolaz hitz egin zieten musika taldeei. Obretan ari ziren bertan, eta zehazki eraikina zertarako erabiliko zuten pentsatu ez zuten arren, Tolosako Udalak Amaroizko eskola musikarekin eta antzekoekin loturiko ekintzetara bideratzeko ideia adierazi zien gazteei.

Hasiera batean, lauzpabost talde hasi ziren entseguak bertan



Amaroizko eskolako eraikinean hainbat musika talde egiten dituzte entseguak. I. URKIZU

egiten: Keiran, Bother Line, Switch eta DJak. Gaur egun, Rhythm eta Wainot taldeak ere bertan aritzen dira, eta Amaroizko musikariek ere badute txokoa entseguak egiteko.

Talde bakoitza astean behin edo bitan biltzen da lokalean, baina musikariak banaka ere joaten dira musika tresnekin aritzeko: «Batez ere bateria joleak aritzen



Taldeak arduratu ziren lokalen hotsgabetzeaz. I. URKIZU

gara, etxean ezin dugulako bateriarik jo», dio musika taldeko partaide batek.

### Arauk bete beharra

Lokal hauetan entseguak egiten dituzten taldeek arau batzuk bete behar izaten dituzte. Besteak beste, ordutegiari dagozkionak dira jarraitu beharreko irizpideak. Gazez musika jotzen aritzea debekatuta dago, eta astean zehar 09:00etatik aurrera has daitezke entsuetan; igandetan berriz, 10:00ak baino lehen ezin dute instrumenturik jo.

Honetaz gain, argiaren eta uraren gastuak ere euren ordaintzen dituzte, taldeetako partaideek

adierazi dutenez: «Ura talde gutxion artean ordaintzen dugu, eta argiari dagokionez, aldiz, talde bakoitzak berea ordaintzen du».

Musika taldeen entsegu lokalek sortzen duten arazo nagusietako bat soinuarena izaten da; aldamenean bizi diren bizilagunekin eztabaidak sortu ohi ditu. Amaroizko lokalen kasuan, oraingoz behintzat, ez dute inongo arazorik izan. Hasiera batean udalako arduradunek musikak 40 decibelatik ezingo zuela pasa esan zieten taldekideei: «Hau ezinezkoa zela esan genien. Eskolako geletan sekulako oihartzuna sortzen zen hitz eginda bakarrik, eta gainera, hitz eginda bakarrik 40

decibelera iristea ez da zaila». Gauzak horrela, musika taldeak udalako arduradunekin bildu ziren, lokalak hotsgabetu egin behar zirela eskatzeko; «gastua handiegia zela esan ziguten, eta beraz, talde bakoitzak bere txokoa hotsgabetu genuen, ahal bezala».

Lanak amaitu eta gero, hotsa neurtzeko tresnekin neurketak egin zituzten. «Kanpotik ezer gutxi entzuten dela ikusi genuen, beraz, arazorik ez». Lokaletan aritzen diren gazteek ez dute, oraingoz, bizilagunen kezurik jaso.

Amaroizko, beraz, musikak, gazte nahiz heldu izan, badu bere sormen txokoa.

• tolosa@hitza.info

Irudikatu mundua  
**BERRIA**rekin

**Egin harpidedun eta jaso  
argazki kamera hau  
OPARI**



**EZAGARRIAK:**

- Kamera digitala, 10 megapixelakoa.
- LCD pantaila, 2.4 hazbetekoa.
- Zoom digitala, x4, argazkiak handitzeko.
- Mugimenduko JPEG bideo formatua.
- Mikrofonoa.
- SD memoria txartelak onartzen ditu.

**Harremanetarako:**  
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**<sup>info</sup>



## Uzturpe ikastolak bere eguna ospatuko du ikasle, guraso eta irakasleekin

Festa larunbatean izango da; jaialdia, pilota partidak, bazkaria eta puzgarriak izango dituzte, besteak beste

M. U. Ibarra

Ikasturtearen amaiera iristen ari da; hori dela eta Uzturpe Ikastola-koak ospakizun berezi bat antolatu zuten ari dira, hilaren 4rako.

Goizean, jaialdiarekin emango diote hasiera festari. Bertan perkusio taldeak, ikastolako ikasleek eta Banintz Alurr dantza taldeko kideek parte hartuko dute; dantza, antzerki, bertso eta beste zenbait xelebrekeri eskainiko dituztelarik. Ondoren, pilotako finalak jokatuko dituzte, eta 14:00etan bazkaria egingo dute Belabieta kiroldegian. Bazkal ondoren, 15:30ean puzgarrietan jolasu ahal izango dute haurrek. Jarraian, toka txapelketa eta dantzaldia ere izango dituzte, festarekin jarraitzeko.

Horrez gain, Azpeitiako Ikasberri ikastolak Kilometrotako postua jarriko du, aurten Azpeitian bertan egingo baita Kilometroak festa.

Azkenik, Uzturpe ikastolak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu festa honetan parte hartzera, eta guztiak batera egun on bat pasatzera.



Haurrek puzgarrietan. E. EZEIZA

# Herritarrek Nieve omendu dute

Denbora batez atsedean hartu ondoren, Espainiako Itzulian parte hartuko du Mikel Nieve, leitzarrek

Maier Ugartemendia Leitza

Leitzarrek omenaldi beroa eskaini zioten astelehen gauean Mikel Nieve, herriko txirrindulariari. Pasa den astean Italiako Giroko etapa nagusia irabazi zuen, eta sailkapen orokorrean hamaikagarren geratu zen.

Euskaltel-Euskadiko txirrindulariak Conegliano eta Gardecia val di Fassa arteko etapa, 229 kilometrokoa, irabazi zuen; baina, ez zen lan erraza izan oso etapa borrokatua izan baitzen. Lortutako emaitzei esker, munduko World Tour sailkapeneko lehengo 50 txirrindularien artean egotea lortu du.

### Omenalditik omenaldira

Aurreikusita zegoen bezala, ehunka leitzar 20:00etan herriko plazan elkartzu ziren, txirrindulariari omenaldia egiteko asmoz. Baina, Mikel Nievek ezin izan zuen ordurako iritsi. Goizean, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilbon, beste omenaldi egin zieten Giroan parte hartu zuten Euskalteleko txirrindulariei, eta bertan izan ziren Mikel Nieve eta Igor Anton txirrindulariak.

Bilbotik Leitzara zetorrela auto istripu bat topatu zuen, eta bertan egon behar izan zuen zain. Horregatik, azkenean 22:00ak arte atzeratu zuten Nieveri egin zioten omenaldia.

Hala ere, herritarrek, lagunak eta familiartekoez ez zioten huts egin Euskalteleko txirrindulariari, eta omenaldi bero bat egin zioten, udaletxearen arkupean. Herriko talde ezberdinek prestatu zioten omenaldia. Lehenik eta behin, eguraldi txarrari aurre eginenez txirrindulariz jantzita zeuden Nieveren lagunak arkuak egin zioten bizikleten gurpilekin. Leitzarra, arkutik pasa eta oholtza gainera igo zen. Bertan Joseba Sa-



Omenaldiaren amaieran, Mikel Nievek argazki bat atera zuen, zenbait lagunekin batera. HITZA



Oholtzara igotzeko arkuak egin zioten bizikleten gurpilekin. HITZA

gastibeltza dantzariak aurreku bat dantzatu zion. Ondoren, Jon Arangoa, kiroltako zinegotziak, lortutako emaitzengatik zoriondu zuen. Jarraian, Xabier Zabalo, Leitzako alkateak, txapela jarri zion Mikel Nieveri, leitzar guztien izenean.

Herriko bertsolariak ere bertso batzuk eskaini zizkieten Euskalteleko txirrindulariari. Zehazki, Miel Mari Elozegi, Luze, eta Jose Luis Barberia, Zili, bertsolariak izan ziren bertsoak bota zizkieteenak. Hauek, lehengo urtean, Espainiako Itzuliko Cotobello eta-

pan Nievek lortutako garaipena gogora ekarri zutelarik.

Leitzako txirrindulari taldeko gaztetxoek ere omenaldian, beraien ekarpena egin zuten; eta Mikel Nieveri egurrean zizelaturako Euskal Herriko armarrria oparitu zioten. Gainera, Jose Luis Larraidek Nieve jubenil mailan zegoeneko argazki bat eman zion. Eneko Anduezak, berriz, bere kuadrilaren izenean lore sorta bat oparitu zion.

Mikel Nievek «pozik eta hunkituta» zegoela esanez erantzun zioten herritar, lagun eta familiartekoez guztiak. Bestalde, herrira garaipean «gehiago» ekartzan saiaturako dela ere esan zuen, horrelako ospakizun gehiago izan ditzaten.

Omenaldiari argazki batekin eman zioten amaiera, arkuak egin zioten lagun guztiak argazkia atera baitzuten Euskalteleko txirrindulariak.

Orain, merezitako atsedena hartzeko garaia du Nievek. Indarrak berreskuratzen ondoren, Espainiako Itzulian parte hartuko du, eta ziur emaitza bikainak lortzen saiaturako dela, eta gainera, hori bete egingo duela.

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

herrietako informazioa inoiz baino gertuago  
ezagutu gure webgune berriak

[www.ibarraldea.hitza.info](http://www.ibarraldea.hitza.info) • [www.alegaldea.hitza.info](http://www.alegaldea.hitza.info) • [www.anoetaldea.hitza.info](http://www.anoetaldea.hitza.info) • [www.villabona-aiztondo.hitza.info](http://www.villabona-aiztondo.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info) • [www.tolosa.hitza.info](http://www.tolosa.hitza.info)

**Eider Elizegi** ◉ Mendizalea

Eider Elizegi lasartearrak, 'Mendia, txikiaren handitasuna' hitzaldia emango du 19:30ean Irurako Ikastolako Areto Nagusian. Letrak eta mendia maite ditu. Idatzi duen 'Mi Montaña' liburuarekin saria jaso du.

# «Bidezidor batetik barneratuta gauza eder asko ikus daitezke»

**Enertiz Maiz** Irura

Tolosaldeko Aste Berdearen barruan, Eider Elizegi lasartearra, Iruran izango da. *Mendia, txikiaren handitasuna* hitzaldia eskainiko du. Gaur 19:30ean, Ikastolako Areto Nagusian izango da. Letrak eta mendia pasio dituen neska gazte honek, bizimodu aldaketaz, eta lortu duen askatasunaz hitz egingo du.

*Mi montaña* liburua idatzi du, lau hilabetez Mont Blanc mendian bizi izandakoaz. Eta gainera, Premio Desnivel de Literatura de Montaña 2010 eskuratu du. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK** Pirinioetatik bueltan datorrela hitz egin du berarekin.

**Noiz izan zenuen mendiarekin lehen kontakua?**

Nahiko berandu hasi nintzen mendian. Kiroletan beti izan naiz oso txarra eta makala. Haurra nintzenetik gorroto izan ditut kirol guztiak. Ia kasualitatez ezagutu nuen mendia. Korrika hasi nintzen, eta ohartu nintzen korri egitea asko gustatzen zitzaidala. Aldi berean, Pirinioetara gerturatzeko hasi nintzen, eta berehala

maitemindu nintzen. Dena den, mendiko etxe batean hazi nintzen eta naturarekin kontaktuan hazteak, pixka bat erraztu zidan.

**Nor da Eider Elizegi?**

Bizitzaz gozaten eta bizitzatik zerbait ikasten saiatzen ari den norbait dela esango nuke. Niretzat begiratzea, idazkeratik oso gertu geratzen da, biak gauza bera dira.

**Guztia utzi eta furgonetan bizi zara. Zerk bultzatu zintuen bizitzari aldaketak ematera?**

Aspalditik nekien horrelako zerbait egin behar nuela. Iritsi behar zuten momentuari itxaron nion eta horretara sartu nintzen. Bizitza sakonago bizitzen dudanaren sentsazioa daukat, bizitzan biluziagoragoa, eta nolabait bizitzako gauza txikiak gehiago dastatu ditzakedala uste dut. Lurrarekin eta munduarekin baterago eta modu horretan biluziagorago bizi naiz. Hau momentu bat da, eta ez dakit zenbat iraungo duen. Ez nau horrek kezkatzen, aukera guztiak bezala, honek ere alde oso onak eta ez hain onak dauzka. Konpentsatzen didan bitartean horrela biziko naiz.

**Zehazki noiz erabaki zenuen bizitza aldatu behar zenuela?**

Urte asko daramatzat horretan. Ez da bat batean egindako aldaketa bat. Agian azken urteetako aldaketak ikusgarriagoak izan dira, baina urte asko daramatzat norabide honetan. Nire bizitzatik gauzak baztertzeko joan naiz, eta duela hiru urte Mont Blancetako aterpetxe batean aritu nintzen lanean. Hortik liburua idaztearena aterata zen. Iazko maiatzean bidaiatu luze bat egitera joan ginen, eta hori baino lehen, otsailean edo, lana eta etxea utzi nituen.

**Mendia eta hitzak. Zure bi pasio dira?**

Niretzat hitzak eta idaztea, oso beharrezkoak dira. Azken finean begiratzea hitzei lotuta dago, eta uste dut nahita ere, inoiz ez diodala idazteari utziko. Orain artean inola ere ez nuen argitaratu ematen idatzitakoak, eta orain blog batean erakusten ditut nire idatziak. Txiki-txikitatik idazten dut, eta paper zati batean idatzi ez arren, buruan beti ari naiz idazten. Eta mendia, bizitza biluziagorago den leku bat da. Errealitatearekin eta munduarekin harremanetan jar-



## Dirua bideratzeko alternatibak badaude

'Banka etikoa, dirua gizakien zerbitzura' erakusketa ikusgai dago Amezketan; ondoren Anoetan egongo da

**Imanol Garcia** Amezketan

Aste Berdearen barruan *Banka etikoa, dirua gizakien zerbitzura* erakusketa ikusgai dago gaur eta bihar Amezketako kultur etxean. Datorren astean Anoetan ere erakusketa berdina ikusgai izango da, kiroldegian.

Setem Hegoizea erakundeak osatu duen erakusketa da. Berta-

ko sentsibilizazio teknikaria den Edurne Pujanak azaltzen duenez, «ikusi genuen oso garrantzitsua zela horrelako panel informatibok sortzea». Pujanak zehazten duenez, «garbi azaldu behar da zer gertatzen den gure diruarekin, bankuek eta kutxek zer egin duten diru horrekin».

Setem Hegoizeako teknikariak gaineratzen duenez, «bankuek nahi dutena egiten dute gure diruarekin. Jendeak ez du jasotzen inolako informaziorik horren inguruan». Informazio gabezia horren aurrean, Setem-ek kanpainak bat jarri zuen abian, Banca Limpia izena duena. Kanpainak horretan txosten bat argita-



Amezketan erakusketa ikusgai dago kultur etxean. I. GARCIA

ratu dute, armak fabrikatzen dituzten enpresen eta bankuen arteko harremanak azalarazten dituen. Pujanak dioenez, «orain duela gutxi Libian izandako bonbardaketa batean Espainiak fabrikatutako bonbak erabili dira, eta Espainiako banku eta kutxa

batzuek finantzatutako armak dira».

Horren aurrean alternatiba badagoela dio Pujanak: «Banku etikoen gure dirua proiektu sozialek eta ingurugiroarekin zerikusia dutenetara bideratzen dute. Gure diruarekin gauza etikoa

egiteko aukera da». Gai hauen inguruan jendea gero eta gehiago interesatzen ari da. Interes horrek ohiko bankuak eta kutxak mugiarazi dituela dio Setem Hegoizeako kideak: «Horregatik sortu dira, adibidez, Banca Civica izeneko proiektuak. Jende gehia-

tzeko oso modu erreala da. Eta uste dut modu horretan daudela lotuta bi gauzak. Niretzat idaztea bizitzea da, eta ez dakit bizitzen idatz gabe. Mendia berriz, bizitza hori oso biluzik agertzen zaidan ingurunea da.

**Mont Blanckeko aterpetxean lanean egon zinen lau hilabetez. Ondoren, bertako bizipenekin, 'Mi Montaña' liburua idatziz zenuen, eta baita, Premio Desnivel de Literatura de Montaña 2010 saria eskuratu ere.**

Sari hori opari bat izan zen niretzat. Lehiaketara aurkeztu aurretik, argitateke batzuetatik pasanuen testua, eta egia da oso erantzun ona izan nuela. Horrek, agian testuak merezi zuela erakutsi zidan. Baina niretzat saririk handiena, testu hori idazteko gai izatea izan zen. Idatziz izan dut baina inoiz ez nintzen saiatu zerbaite handiagoa idazten, eta ez nuen gai ikusten nire burua. Beldur asko neuzkan.

**Nolako esperientzia izan zen Mont Blancken bizitzearena?**

Niretzat oso ederra izan zen. Oso ingurune basatian eta bizigabean bizi ginen. Oso altu dago aterpetxea. 3.800 metroan, glaziar batean sartuta dago. Mundutik aparte eta ingurune latz batean, izotzaz inguratuta bizi ginen. Eguneroko gauza txikiak ere konplikatu egiten ziren. Ez dago ur likidirik, dutxa bat hartzea sekulako luxua da. Holako leku batek, horrelako gauza txikiak asko baloratzen irakasten dizu.

**Zerkendu edo eman dizu mendiak?** Gauza asko eman dizkit mendiak, eta askotan kontsideratzen dut, kendu dizkidan gauzak ere eman egin dizkidala. Ez dauzkadan gauzak aberats egiten naute, eta agian dauzkadan gauzak baino gehiago! Jabetzak edo gauzak edukitzeak, batzuetan esklabo

egiten gaituztela iruditzen zait. Alpinismoa, eskalada eta mendia egitea bizitzaren ispilu sinplifikatua bat jasotzea bezala da. Oso gustura bizi naiz.

**Nolako da zure eguneroko bizitza?**

Egun bakoitza ezberdina da. Eguraldiak asko baldintzatzen nau, eta egunerokoa oso egunera bizitzen dut. Ez ditut planak epe luze-ara egiten, egun pare batean edo aste batean zer egingo dudan batzuetan jakiten dut. Bestela, proiektu editorial ezberdinetan sartuta nago, eta lan dezente egiten ari naiz. Ordenagailuaren arrear ordu asko sartzen ditut. Segun eta non nagoen, eta zein eguraldi egiten duen, eskalaten eta mendian ibiltzen naiz.

**Zer jasoko du hitzaldira gerturatzeko denak?**

Ez noa ezer irakasteko asmotan. Nire esperientziak jendearekin konpartituko ditut, eta norbaitek hortik zerbaite atera ahal badu, bejino deiola. Bestela ordubate xamur bat pasatzea espero dut. Nire azken urteetako esperientziak azalduko ditut: Mont Blancen nola bizitu nintzen, Peru eta Boliiviako bidaiak, orain nola bizi naizen, gauza gutxiarekin ondo bizi daitekeela. Daramagun bizitzarekin, gauza txikiak baloratzea ahaztu egiten zaigula uste dut, eta gauza txikiak zenbat eder-tasun gordetzen den erakutsi nahi dut. Bestetik, mendiaren mundua oso lehiakorra bihurtu da, eta gizartearen isla bezala ikusten dut. Badirudi espedizio handiak, mendi altuak eta arriskutsuak igo behar direla merezi-mendiak egiteko. Hori akats bat dela uste dut. Bidezidor batetik barneratuta gauza eder asko ikus daitezke, eta niretzat horrek garrantzi handiagoa du, batzuetan gailur batera iristek baino.

## ↓ Egitaraua

### EKAINAK 1, GAUR

■ **Amezketak.** *Banka etikoa, dirua gizakien zerbitzura erakusketak*, Kultur Etxean, 18:00etatik aurrera. Bihar ere zabalik izango da. *Nola elikatzen dugu mundua?* bideoforuma, 19:00etan, Kultur Etxean.

■ **Irura.** Eider Elizegiren *Mendia, txikiaren handitasuna* hitzaldia, 19:30ean, Ikastolako areto nagusian.

### EKAINAK 2, BIHAR

■ **Aduna.** *Nola elikatzen dugu mundua?* bideoforuma, herri eskolan, 17:00etan.

■ **Tolosa.** *El pan nuestro de cada día* filmarekin zine-kluba, Leidor aretoan, ohiko ordutegian.

■ **Zurkil.** *Nola elikatzen dugu mundua?* bideoforuma, Atxulondon, 19:30ean.

go erakarri nahi dute, baina bakkarririk publizitateagatik egiten dute. Diruaren zati handiena ez dakigu nora bideratzen den».

### Aukerak

Gurean bi banku etiko daudela dio Pujanak. Horieta bat Fiare izenekoa da, Setem erakundearekin harremana duena. Bertan norbanakoek ezin dute konturik izan, baina bai elkarteek. Triodos Bank izenekoan norbanakoek ere kontuak izan ditzakete, eta maile-guak eskatu ere bai.

Krisialdi ekonomikoak banku etikoei buruzko ikusmina piztu duela dio Pujanak: «Jendeak ikusi duenean krisialdi hau bankuek sortarazi dutela, alternatibak badaudela konturatu dira. Honelako bankuak badaude beste herrialde batzuetan funtzionatzen ari direnak. Possible da gure diruarekin beste gauza batzuk egitea. Alternatiba hori indartu egin da, jendea nekatuta dagoelako ohiko bankuek nahi dutena egiten dutelako».

# Bertsolari Txapelketaren lehen fasea amaitzear aurkitzen da

Lehen fasearen azken saioa asteburuan izango da; Artola eta Gorostidi Zumarraga-Urretxun egongo dira

## Erredakzioa

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren lehen fasea amaitzear aurkitzen da. Azken saioak asteburu honetan jokatuko dira, eta ondoren final zortzirenen txanda izango da. Koska horretan, Amaia Agirrearekin batera, beste bederatz bertsolari aurkitzen dira, zain. Ondoren etorriko da Jexumari Irazuren txanda, larrauldarra, bost bertsolari gehiagorekin batera, final laurdenetan gehituko baita txapelketara. Horiek ordea, irailako kontuak dira, eta aurrez, lehen faseko bertsolariak ari dira lehian, horien artean, eskualdeko bost.

### Amezketan, Beñat Iguaran

Iragan larunbatean, goizeko saioan, Beñati Iguaranen txanda izan zen. Amasarrik Amezketako goizeko saioan kantatu zuen. Kultur etxean 80 lagun inguru elkartu ziren, eta Iguaranekin batera Ibai Esoain, Mikel Olaizola, Antton Fernandez, Gorka Etxeberria eta Iñaki Apalategi aritu ziren lehian. Gai jartzaila Irati Arrieta izan zen. Saioa antolatzeke lanean Fernando Amezketarra bertso eskolako kidean laguntza izan zuen Gipuzkoako Bertsozale Elkartek.

Lehen agurretatik sendo hasi ziren sei bertsolariak. Bizi hasi ziren, eta arrazoi onekin osatu zituzten euren bertsoaldiak. Zortziko handiaren ostean, txikiarekin ekin zioten saioari. Bikote kontuak izan zituzten gaitzat, eta umorez erantzun zieten seiek ere, entzuleen gozamenerako.

Iparragirrenen doinuaren txandak izan zen ondoren. Sakonago jardun zuten langintzan honetan, umore-printzez lagunduta, eta ale ederrik ere utzi zuten.

Kartzelako saioan, azkenik,



Adur Gorostidi Zumarraga-Urretxuko saioan ariko da. HITZA

puntu erantzunei aurrenik, eta hitza emanda ondoren, bertsoa osatzeari ekin zioten. *Zortea* hitza emanda osatu behar izan zuten bertsoa. Ondo aritu ziren seiak, eta hemen ere ale ederrak bota zituzten.

Bukaeran, Iñaki Apalategi izan zen puntu gehien batu zituena. Erregularitasunak lehen postua eman zion Apalategiri, eta 332 puntu bildu zituen. Bigarren, Beñat Iguaran gelditu zen, 328,5 punturekin.

### Usurbilen, Iñigo Gorostarzu eta Oihana Iguaran

Berastegiko bertsolariari Usurbilen kantatzea tokatu zitzaion larunbatean, goizeko saioan. Iñigo Gorostarzu gain, Sutegi aretoan beste bost bertsolari elkartu ziren: Beñat Alberdi, Iban Urdangarin, Josu Oiarzabal, Unai Gaztelumendi eta Zigor Iriondo. Gai jartzaila Haitzol Olaiz izan zen.

Bertsolariak animatu eta hauen bertsoez gozatzeko prest aurrean zituzten 60 bat lagun. Hasiarako agurretan guztiek dena emateko prest agertu ziren, irailarako txartela lortu nahian denak ere. Saio puntuagariari zortziko handiarekin ekin zioten, eta ale politik entzuteko aukera izan zuten entzuleak. Saio orekatuak

izan ziren tartean. Ondoren, umorez ekin zioten zortziko txikiari. Jarritako gaiak lagunduta, eta elkarrir erantzunez saio gustagarriak osatu zituzten.

Iparragirre doinua erabiliz egin behar izan zuten ondorengo ariketa. Hemen seriotik ekin zioten lehen bi bikoteek, baina azken bikotearekin barre egiteko aukera izan zen. Saio puntuagariarekin bukatzeko kartzelako lana bete zuten seiek. Puntuak emanda hiruna bertso, eta ondoren hitza emanda bertso bana. Hitza *Zortea* zen, eta hemen ere ale politekin gozatzeko aukera izan zen. Puntuak batuketa eginda, Unai Gaztelumendi izan zen irabazlea, 338 punturekin. Iñigo Gorostarzu laugarren sailkatu zen, 303 punturekin.

Arratsaldean Oihana Iguaranen txanda izan zen. Amasarrik Usurbilen laugarren postua lortu zuen, 270,5 punturekin.

### Artola eta Gorostidi

Lehen fasea asteburu honetan amaituko da. Zumarraga-Urretxun eskualdeko bi bertsolari egongo dira. Goizean, Mikel Artolaren txanda izango da, eta arratsaldean, Adur Gorostidirena. Saioak 11:30ean eta 17:30ean hasi-ko dira.

## → Laburak

### Hamaiketakoak jubilatuentzat, igandean

**AMEZKETA** › Festa batzordeak hamaiketakoak antolatuta du herriko jubilatuentzat ekainaren Sean, gela balio anizdunean, 12:30ean. Izena udaletxean edo 688 63 19 52 zenbakian eman behar da, ekainaren 3rako.

### Sahararen aldeko janari bilketa ekainaren 3a arte

**AMEZKETA** › Tolosaldeko beste hainbat herritan bezala, Sahararen aldeko janari bilketa egiten ari dira Amezketan. Bilketa udaletxean izaten ari da eta ekainaren 3a arte iraungo du. Eraman daitezkeen produktuak ondokoak dira: arroza, lekaleak, sardina, antxoia eta atun latak, azukrea, konpresak, olioia eta eta pertsona helduentzako pixohialak.

### Kultur Astean, Jose Luis Kortak eta bakarrizketak

**ALBIZTUR** › Kultur Astearen barruan, beste bi ekitaldi izango dira aste honetan. Gaur, 19:30ean, Jose Luis Kortarekin solasaldia izateko aukera egongo da, arraunaz zein telebista munduaz, besteak beste. Etzi, 20:00etan, antzerki emanaldia izango da eta bertan lau bakarrizketa entzun ahaliko dira. Bi saioak udaletxearen areto nagusian egingo dira.





GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	13°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**  
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Belauntza,  
Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Irudia** Tolosa



# HIRUKIDEKO INFANTIL MAILAKO MUTILEN GARAIPENA

Tolosako Hirukide ikastetxeko atletismo taldeko infantil mailako mutilek bigarren postua eskuratu berri dute Euskadiko Atletismo Txapelketan. Lehiaketa pasa den asteburuan izan zen Gasteizen, Mendizorrotzako instalazioetan, hain zuzen ere. Hirukideko arduradunek, gazteak zoriontzarekin batera orain dela bi asteburu eskuratutako garaipenak ekarri nahi izan dituzte gogora. Izan ere, mutilek Gipuzkoako Txapelketako garaipena

etxeratu zuten, eta neskak laugarren gelditu ziren Iruenen, Playauindiko pistan. Bestalde, Hirukide Gainberriko patioan haurtzaindegiko haurrek aitona-amonei esker emateko ekitaldia egingo dute gaur, 16:30ean. HITZA

etxeratu zuten, eta neskak laugarren gelditu ziren Iruenen, Playauindiko pistan. Bestalde, Hirukide Gainberriko patioan haurtzaindegiko haurrek aitona-amonei esker emateko ekitaldia egingo dute gaur, 16:30ean. HITZA

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Amezketeta.** *Nosotros alimentamos el mundo* bideoa foruma izango da gaur, 19:00etan Kultur Etxean Tolosaldeko Aste Berdearen barruan.
- **Irura.** Eider Elizegi mendizaleak hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30etik aurrera Ikastolako areto nagusian Tolosaldeko Aste Berdearen barruan.
- **Villabona.** Erretzeari utzeko hitzaldia gaur, 19:00etatik aurrera Irrintzi Elkartearen.
- **Berastegi.** Guraso Elkarteak antolatuta Inazio Urangak nekazaritza ekologikoaren inguruko hitzaldia eskainiko du gaur, 19:00etan Eskolako ganbaran.

- **Albiztur.** Kultur Astearen barruan, Jose Luis Korta izango da gaur, 19:30ean udaltxeko hitzaldien aretoan.
- **Tolosa.** *Zoriontsu izateko hezkuntza* hitzaldia eskainiko du Begoña Ibarrolak gaur, 18:00etan Hirukide ikastetxean (San Frantzisko, 12).
- **Tolosa.** Hirukideko haurreskolan aitona-amonei eskerrak emateko ekitaldia egingo dute gaur, 16:30ean Hirukide Gainberriko patioan.

**ERAKUSKETAK**

- **Tolosa.** *Zipristin* keramika erakusketa Aranburu jauregian ekainaren 11 bitarte.

- **Amezketeta.** *Banka etikoa, dirua gizakiaren zerbitzura* Kultur Etxean bihar bitarte, Tolosaldeko Aste Berdearen barruan.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**Agurak**



**Zorionak!**  
**Lontxo Irazusta.** 89 urte bete zituen astelehenean. Zorionak Berobiko lagunen partetik, Miren, Ione, Pablo eta Agurtzane.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurak**

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO** hitza info  
bertako egunkaria  
**egin zaitetz harpidedun!**

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info)

eraman/bidaliz izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>